

Berriak elkarteak euroarekin ohitzeko kanpaina antolatuko du datorren azaroan

■ Hori erabaki du batzar orokorrean ■ Euroarenarekin batera, aldizkaria eta txartela izan dira aurtengo proiektu garrantzitsuenak ■ Hitzaldia antolatu du gaurko: 'zer egin behar da bezeroa ez galtzeko', 15:00etan Sandiusterrin.



Beste urteetan baino jende gehiago izan zen Berriaken batzar orokorrean.

BERRIAK elkarteak astear-tean egin zuen batzar orokorra. Beste urteetan baino merkatari eta ostalari gehiagok erantzun zion deialdiari, eta azkeneko 30 lagunetik gora bildu ziren.

SIMULAZIOA

Euroaren gaia izan zen batzarreko puntu nagusietako bat. Euroa sartzean, merkatari eta ostalariak ere nozituko dituzte txanpon berriaren ondorioak. Hala ere, batzarrean azaldu zenez, denak ez daude aldaketa hainbestekoa izango delakoan.

Jendea diru berriarekin ohitzeko, Berriakek simulazioa bat egingo du datorren

azaroan. Oraindik, nola, zenbat eguneko eta horrelako detaileak erabaki gabe daude. Proiektua udalak ordainduko du eta Artelatz enpresaren gain geldituko da.

'TXARTELA' ETA ALDIZKARIA

Batzarrean hitz egindako beste bi puntu txartelaren eta aldizkari berriaren kontua izan ziren. Berriaken txartela duenak astean behin produktu jakin batzuk deskontuarekin eros litzazke 15 komertzioetan. Mari Kruz Muguruza Berriakeko lehendakariak Kronikari esan dionez, oraindik berria da eta indarra hartzen ari da.

Aldizkaria ateratzen ere aurtun hasi da Berriak. Dagoeneko bi zenbaki kaleratu ditu. Hasieran, helburua bi hilabetez behin ateratzea zen, baina, Berriakek zaila ikusten du erritmo horri eustea eta bitartekoak izan ahala argitaratzen jarraituko du. Azken zenbakiak 3.500 aleko tirada izan du. Gainerakoan, hementik urte bukaerara Santo Tomaseko azoka eta Eguberrietako zozketa dira Berriakek egingo dituen ekitaldi garrantzitsuenak.

GARAI ERRAZAK EZ

Mari Kruz Muguruzak aitortu duenez, komertzio txikiak ez ditu garai errazak bizi. "Ko-

mertzio txikian prestatzen ari gara: teknologia aldetik, pres-takuntza aldetik, instalakuntza aldetik... baina garenari uko egin gabe" dio Mari Kruzek. Bestalde, Gipuzkoan badago merkatari elkarten elkarte bat, 3.100 komertzio biltzen dituena eta Berriak hor sartu da orain.

Berriakeko lehendakariak dei berezia egiten die oraindik elkarten ez dauden establezimenduei Berriakera biltzeko. Bilerak astelehenetan egiten dira, arratsaldeko 20:00etan, Sandiusterrin behean.

Berriak elkarteak 110 establezimendu ditu. Horietatik 70 komertzioak, eta 40 hostalaritzakoak. □

'Traffic' filma gaur Gudarien plazan

■ 22:30etan botako dute.

GAUR gauean hasiko da udalak antolatzen duen udako zine saioa. Hiru egun eta hiru pelikula izango dira: *Traffic*, *102 dalmatas* eta *Limite vertical*.

Traffic narkotrafikoaren inguruko pelikula da eta hiru pertsonaien begitik tratatzen du gaia: Mexikoko polizia baten ikuspegitik, Estatu Batuetako drogaren aurkako fiskal buruaren ikuspegitik; eta, berak ez dakiela, senarra trafikantea duen emaztearen ikuspegitik.

Euria ari badu suspenditu egingo da. □

23 ikuskizun Donostiako Antzerki Ferian

■ Atzo hasi zen eta gaur zazpi antzerki izango dira.

DONOSTIAKO VIIIgarren Antzerki Feriak igo du teloa. Atzo arratsaldean hasi zen Bernard Marie Koltesen 'En la soledad de los campos de algodón' obrarekin. Gaur zazpi obra izango dira, bakoitza leku banatan: 12:00etan, *Deadly* (Circo mínimo), Lugaritzen; 17:00etan, *La noche oscura* (Inperdibles Prod.), Egian; 18:00etan, *Urbasako astronautak* (Hankagorri), Zurriolan; 18:30etan, *De profesión princesa* (Ohilari Klowne+Trokolo antzerkia), Aquarium auditorioan; 20:00etan, *Underground* (Markeliñe), San Telmo museoan; 23:00etan, *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* (Circo mínimo), Antzoki zaharrean; 00:45etan *Sutargi* (Circo mínimo), Kursaallean. Zazprietatik bik, *La noche oscura* eta *Sutargi* gaur dute estreno ofiziala. □

Elkarri Bake Konferentziaren alde sinadurak biltzen ariko da gaur

■ Feria lekuan jarriko du mahaia: 16:00-19:00.

ELKARRIK Bake Konferentzia antolatu du datorren udazkenetik udaberrira. Horretarako babes bila ari da eta, besteak beste, 40.000 firma bildu nahi ditu. Sinaduraz gain, hala nahi duenak 1.000-

ko laguntza eman lezake. Gaurkoa izango da hirugarren eta azken firma bilketa publikoa. Elkarriren prentsa oharrak dioenez, Bake Konferentziaren antolaketa orokorrean ondo dagoa. □



Galarreta gaina z/g - HERNANI

OHARRA

Iruñan jokatzen den San Fermin torneo dela eta, gaur ez da jaialdirik.

ABUZTUAN ETA IRAILEAN EGUNERO PARTIDUAK GALARRETAN. JAIALDIARRATSALDEKO 16:00etatik AURRERA.

San Markosek ontziak gaika bildu eta birziklatzeko sentsibilizazio kanpaina hasi du

■ Ontzi mota ezberdinen bilketa eta birziklaketa bultzatzea du helburu ■ Herritarren partehartzearen garrantzia azpimarratzen du kanpainak.



San Markoseko arduradunak asteleheneko prentsaurrekoan.

ASTELEHENEAN aurkeztu zuten San Marcos Mankomunitateko arduradunek, ontzien gaikako bilketa eta birziklapenari buruzko sentsibilizazio kanpaina. Kanpaina ekainaren 20tik martxan dago eta uztailearen 3 arte iraungo du.

PARTEHARTZEA

Kanpaina, San Markoseko Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietako herritarrei zuzendua da. Kanpainak, bereizteko prozesua etxetan hasten dela gogorarazten du. Herritarrek hiru ontzi mota

bereizi behar dituzte gainontzeko hondakinetatik (beira, papera eta, kartoia eta ontzi arinak). Xabier Landa San Markoseko lehendakariaren esanetan "birziklapen helburua lortzea, herritarren partehartzearen araberago", jendeak zenbat eta nola uzten duenaren arabera, alegia. Asko biltzea garrantzitsua bada ere, ondo biltzea garrantzitsuagoa da, ontzi bakoitza behar den edukiontzian sartzea alegia. Une honetan biltzen diren ontzien %24,89a ez egokia (behar ez den tokian sartutakoa) da, eta honek berziklatze lana asko zailtzen du. Kopuru hau murriztea da San Markosen helburuetako bat.

ZERBITZUA HOBETU

Zerbitzua hobetzeko asmotan, San Markos edukiontzia ezberdinen hustutze maiztasuna aztertzen ari da. Edukiontzia kopuruari dagokionez ere, izango da aldaketa. Une honetan edukiontzia bat dago 500 biztanleko eta aurrerantzean 1/400eko ratoria iristeko asmoa du San Markosek. □

Sua Sandiusterri ondoko etxe batean

■ Ez da zauriturik izan ■ Itxura denez, sua bere kasa piztu zen ■ Bonberoek berehala itzali zuten.



Suhilzaileak sua itzaltzen, zinegotzi eta udaltzainen aurrean.

SANDIUSTERRI eta Gaymurren tarteko etxeetako batean sua izan zen atzo goizean. Sua 11:30ak aldera hasi zen etxe bakoiko aldean. Bonberoak, ordea, segituan etorri eta berehalaxe itzali zuten.

INOR EZ ETXEAN

Sua piztu zenean ez zen inor etxean eta ez da izan zauriturik. Ez da sua zergatik hasi zen argitu. Aipatu dena da, litekeena dela kortozirkuito batek eraginda sortu izatea. □

'Orotariko Euskal Hiztegiak' egoitza berria du

■ Atzo inaguratu zuten ■ "Hiztegiak euskaraz esan eta idatzi den gutzia biltzea du helburu", dio I. Sarasolak.



Ezkerretik, lokal berrian: Iñaki Seguro, Ainhoa Otamendi eta Maixa Goikoetxea (Euskaltzaindiak Gipuzkoako ordezkari izan duen kide hernaniarra).

OROTARIKO Euskal Hiztegiak atzo ezkerretik etxe berria du: Benta Berrin jarri dute, Xalbador kalean, Donostian. Mitxelena hizkuntzalariek hasitako lan mardul horren 16 tomo dagoeneko eginak daude. Proiektuak Hernani erdiz erdi harrapatzen du. Lan taldeko burua

Iñaki Seguro Hernanin bizi den azpeitiarra da; langile-etako bat, berriz, Ainhoa Otamendi. Hiztegiarako iturri garrantzitsuak ere baditu Hernanik: Kardaberaz, Iturriaga, Txirrita... Inaugurazioan Haritxelhar (Euskaltzain burua) eta Donostiako autoritateak izan ziren. □

Urbieta Kopia eta Lete Liburudendak 'Udalaren Euskara Ziurtagiria' jaso dute

■ Ziurtagiriak atzo banatu ziren Donostiako hotel batean egindako ekitaldian
■ Proiektua Gipuzkoako zenbait udaletzek bulatzatua da, tartean Hernanikoa.



Imanol Beroitz zinegotzia Urbieta Kopiakeko ziurtagiria sinatzen.

GIPUZKOAKO bederatzi udalek komertzioetan euskara gehiago erabiltzeko modua bilatu nahi eta *Merkataritza Euskalduntzeko Plan Integrala* jarri dute martxan: errotulazioak euskeratzeko diru-lagun-

tzak, itzulpen zerbitzua... eta orain Udalaren *Euskara Ziurtagiria*. Udalak bezeroarekin %80an euskeraz egiten duen establezimenduari ematen dio sari hori, baldintza hura eta antzeko beste batzuk bete ezker.

Proiektua berria da. Oraindik, Gipuzkoan 9 udaletxe daude sartuta eta 26 establezimenduri eman zaie ziurtagiria. Hernanin *Urbieta Kopia* eta *Lete Liburudendari*. Udalak proiektua zabaltzekotan dira.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933